

Joxe Iriarte, Bikila

Nazioa eta klasea

A


ldez aurretik, aitortu behar dut orriotako irakurleokin zorretan nagoela aurreko idatzian egindako hutsegite batengatik. Alegia, memoria historikoren inguruan gure agintariek sarri adierazten duten zurikeria eta axolagabekeria agerian utzi nahi nuen, Donostiako kale batek Yague jenerala frankistaren izena zeramala salatuz. Bada, urteek bista kamustu didatelako edo nire zelatze gogokak traizio egin zidalako, kontua da Etxague jartzen zuen tokian Yague irakurri nuela. “Bakoitzari berea hori gizalegea!”. Barkamena Donostiako Udalari. Beste kontu bat da zergatik XIX. mendeko argentinarrak militarri eskaini dioten kale hori. Dena den, oraindik bere horretan jarraitzen du *Topo Gigio* izengoitiz ezaguna zen Jose Elozegi alkate frankistaren etorbideak. Norbaitek jakingo du zergatik.

Aberri Eguna joan berri zaigu eta Maia-tzeko Lehenaren bezperetan gaude. “Mundu guztiko herri eta langileak, elkar gaitezen!” aldarriaren bitartez Lenin eta Trotskiren garaiko *Komiterak* kapitalismo inperialistaren aukako fronte anitza gauzatu nahi izan zuen. Harez geroztik, kontrako iritzia nagusitu dira munduan zehar.

Nazio askapena abiapuntu, batzuen-tzat, berau ezin omen da uztartu klasearen internazionalismoarekin. Froga: komunismoak inperialismo berri bat sortu zuen hizkuntza gutxiak suntsituz eta nazio asko zapalduz. Hots: abertza-leok elkar gaitezen!

Internazionalismoa abiapuntu, besteentzat, berau ezin omen da uztartu abertzaletasunarekin. Froga: berekoikerian oinarritzen da eta burgesiari bide ematen dio langileria zatikatzeko. Hego Irlandak independentzia lortu zuen baina eskuin elizkoia nagusitu zen. Jugoslavia ohiko abertzaletasunak garbiketa etnikoak burutu zituen, eta Europa osoko eskuin muturreko gorakada abertzalekerian oinarritzen da. Hots: izan gaitezen internazionalista aratzak!

Gezur guztiek dute bere egia puntta. Proletarioen internazionalismoaren ize-nean *Varsoviako Itunak* beren menpekoei “burujabetasun baldintzatua” inposatu zien, zinezko internazionalistari min egi-



DANI BLANCO

nez. Baina, zenbait nazio zanpatuak askatzerakoan beste nazioei egiten dietenak kakazten du abertzaletasuna –kroaziarrek Krajinako serbiarrei, eta hauen erkideek bosniarrei, adibidez–.

Edo, urtetan pobre izandako herriek ongizate apurrak lortu ondoren zein erraz ahazten duten –dugun– duela gutxi arte beren –gure– herritar askok deserriko bidea hartzen zutela, eta egun, esker txarrez etorkinei eskubide bera ukatzen dietela –diegula–. Horrek bidea egiten dio arrazakeriari edo xenofobiari.

Alabaina, nire ustez, zailtasunak zailtasun, inoiz baino beharrezkoagoa dugu internazionalismoa eta burujabetza uztartzea. Izan ere, kapitalismo basatiak gobernatu munduan bizi gara, hiru krisi elkarlotuen barnean (ekonomikoa, ingurumenarena eta elikadurarena), jendarme orokontrolatzailearen mehatxuarekin.

« Urtetan pobre izandako herriek ongizate apurrak lortu ondoren zein erraz ahazten duten –dugun– duela gutxi arte beren –gure– herritar askok deserriko bidea hartzen zutela, eta egun, esker txarrez etorkinei eskubide bera ukatzen dietela –diegula–. Horrek bidea egiten dio arrazakeriari edo xenofobiari »

eta nazio gehienek burujabetza murriztuz edota ezabatuz batere lotsarik gabe, gizadia horrela amildegiaren ertzean jarritz. Gaur egun nekez planteatu daiteke burujabetasun nazionala, produkzio bitartekoen, diruaren jabetzaren izaerarekiko eta ingurumenarekiko harremanak argitu gabe, eta planetaren gainontzeko lur eta herriekin elkartasuna landu gabe. Hots, elkartasuna ezinbesteko da!

Nola egin? Bat: nazio eta klase bezala autodeterminatzeko eskubidearen bitartez zapaldu guztiak elkartuz. Bi: asmo ederren handi ondoan sortzen diren arrain kondar-jale guztiak saihestuz. ■